

Bergaran, 2020ko otsailaren 19an.

Zalbidarko zabortegian 2020 otsailaren 6an gertatutako hondamendiaren ondoren Eusko Jaurlaritzak egindako airearen kalitatea neurtzeko analisietan ikusi da dioxina eta furano maila gomendatutakoa baina nabarmen altuagoa dela.

Aintzat hartuta zabortegia Bergaratik lerro zuzenean 10 km baino gutxiagora dagoela eta kutsatzaile horiek udalerrira barreiatzeko arriskua dagoela, herritarren ezinegona hazi egin da egun hauetan.

Horrenbestez, honen bidez eskatzen dizut Zaldibarko zabortegiaren hondamendiaren eraginez airearen kalitatea kaltetuta egon daitekeen eragin-eremua zabaldu, eta Bergaran ere airearen dioxina eta furano mailen neurketak egiteko eta gomendatutako maila baino altuagoak direla ikusten bada, dagokion babes neurriak hartzeko. Testuinguru honetan, eskatzen dizut ere egingo diren neurketen inguruko informazioa ematea eta modu berean ondorioz har daitezkeen neurrien inguruan informa gaitzazuen.

Bestarik gabe, egindako eskaerak aintzat hartuko dituzuelakoan, agurtzen natzaizu. Adeitasunez.

ALKATEA



Izpta: Gorka Artola Alberdi

EUSKO JAURLARITZA.
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILBURU J.a.
GASTEIZ.